

ESS-089-2020 IVAP azterketa 14_14

IVAPeko LANGILEEN PREBENTZIO-JARDUNERAKO PROZEDURA COVID 19REN AURREAN,
HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBAK GARATZEAN.

AURRETIAZKO GOGOETAK

IVAP-Herri Arduralaritzen Euskal Erakundeak (aurrerantzean, IVAP) 2020ko ekainean eta uztailan, Lakuan erabili ohi duen gelategian (janela ondoko gelan), hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko proba bateratu batzuk egitea erabaki du.

Une honetan Euskadin SARS-CoV-2 birusak eragindako pandemiaren ondorioz gertatzen ari den osasun-larrialdiko egoera dela eta, beharrezkoa da birusaren aurkako prebentzio- eta babes-neurri gehigarriak ezartzea, bai azterketara deitutako pertsonentzat, bai proba horietan egongo diren IVAPeko langileentzat.

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetan, gehienez 20-25 azterketari egongo dira gelan (betiere, gehienez, aforoaren herena).

Gela itxi batean gehienez 20 - 25 pertsona egotea aurreikusten da, eta horrek babes-neurri egokiak hartzea eskatzen du.

Kontuan izan behar da prozedura hau azterketak egingo dituzten pertsonen ez zaiela aplikatzen, Prebentzio Zerbitzu honen eskumen-eremuan ez daudelako.

Prozedura hau IVAPeko langileei bakarrik aplikatuko zaie, goian aipatutako Lakuako gelategian proba horiek antolatzen eta garatzen lan egiten dutenei.

IVAPeko LANGILEEK EGITEN DITUZTEN ZEREGINAK

IDATZIZKO AZTERKETA

1.ZEREGINA: Mahai gainean erantzun-orriak eta azterketa-koadernoak utzi.

- Materiala biltzeko eta Lakuako gelategira eramateko lanetan, beharrezkoa da langileek maskara eta eskularruak erabiltzea. Zorrotz bete beharko dituzte maskarak eta eskularruak erabiltzeari buruzko arauak (ikus *Norbera babesteko ekipamenduak* (aurrerantzean, NBE) *jartzeko irizpideak* dokumentua).
- Langile horien esku jarriko da egin beharreko lana egiteko behar den maskara kopurua. Kirurgia-maskarak modu jarraituan 4 orduz erabil daitezke; denbora hori igarotakoan lanean jarraitu behar badute, erabilitakoa bota eta beste bat jarri beharko dute. *NBEak jartzeko irizpideak* dokumentuan aipatutako jarraibideak jarraituko dira.
- Era berean, eskularruak eta gel hidroalkoholikoa emango zaizkie.
- Maskarak eta eskularruak botatzeko jarraibideak kontuan hartu behar dira (ikus *NBEak jartzeko irizpideak* dokumentua).



ESS-089-2020 IVAP azterketa 14_14

2. ZEREGINA: Sarrerako atean azterketariak identifikatu.

- Azterketariari NANA eskatuko zaio eta zerrendan dagoela berretsiko da.
- Azterketariaren NANA ez da manipulatu; azterketariak berak NANA erakutsi eta IVAPeko langileari zenbakia ozenki emango dio. Hala ere, beharrezkoa den egoeretan, NANA garbitzeko alkohola erabiliko da (adibidez, IVAPeko langileak ukitu badu).
- Azterketariari esleitu zaion eserlekua adierazi beharko zaio; izan ere, batzuetan, maskarak komunikazioa oztopa dezake eta, beraz, pertsona horri, ahal izanez gero, esleitu zaion eserlekua zein den adierazten duen tiketa ematea gomendatzen dugu.

3. ZEREGINA: Jarraibideak eman.

- Mikrofonoa erabiltzen bada, plastikozko babes-zorroa izan beharko du.

4. ZEREGINA: Guneko arduradunek azterketarien zalantzak argitu eta, beharrezkoa bada, erantzun-orriak aldatu.

- Lehen adierazi den bezala, lan hori egiteko maskara erabili behar da. Zalantzak argitzean, ahalik eta distantzia handiena zainduko da. Eta maskara eramanda 2 m-ko distantzia gorde beharrik ez dagoen arren, ahalik eta gutxien hurbiltzen saiatuko dira, azterketariak ez ukitzeko.
- Erantzun-orriak aldatzeko, orri berria emateaz gain, eskuak garbitzeko gel hidroalkoholikoa emango zaio azterketariari.
- Identifikazio-fitxak eta erantzun-orriak azterketariak joan direnean jasoko dira.
- Gelatik irteten diren pertsonak gel hidroalkoholikoa izango dute eskura, eta eskuak garbitzeko esango zaie.
- Azterketariari boligrafoa ematen bazaio, erabili aurretik eta ondoren alkoholaz garbituko da.

AHOZKO AZTERKETA

1. ZEREGINA: mahai gainean bakarrizketarako fitxa eta orri zuria utzi

- Bakarrizketarako fitxa eta orri zuria banatu aurretik, eskuak garbituko ditu orriak banatuko dituen langileak.
- Fitxak ezingo dira azterketarien artean partekatu, bakoitzak berea izan beharko du.
- Ahozko azterketa amaitzen dutenean, aztertzaileak bakarrizketarako fitxa eta oharrak egiteko erabili duen orria hartuko ditu eta sobre batean gordeko ditu gero apurtzeko (fitxa horiek ezin dira berrerabili).
- Bukatutakoan aztertzaileak gel hidroalkoholikoaz garbituko ditu eskuak.

ESS-089-2020 IVAP azterketa 14_14

2. ZEREGINA: Sarreran azterketariak identifikatu

- Azterketariari NANA eskatuko zaio eta zerrendan dagoela berretsiko da.
- Azterketariaren NANA ez da manipulatu; azterketariak berak NANA erakutsi eta IVAPeko langileari zenbakia ozenki emango dio. Hala ere, beharrezkoa den egoeretan, NANA garbitzeko alkohola erabiliko da (adibidez, IVAPeko langileak ukitu badu).
- IVAPeko langileak gelan sartzeko esango dio azterketariari, betiere pertsonen arteko 2 metroko segurtasun-distantzia zainduz.

3. ZEREGINA: Gela antolatu

- Ahozko azterketa bakoitzean 4 pertsona egongo dira, gelaren dimentsioak kontuan hartuta, pertsonen arteko 2 metroko segurtasun-distantzia gordeko da. Horrela ez bada, gelako pertsona orok maskara jarri beharko du.

IVAPeko LANGILEEK EGIN BEHARREKO LANEI BURUZKO OHAR OROKORRAK:

- Lan egiteko eta ekipoak aldatzeko behar adina maskara eta eskularru izango dira.
- Langileen eskuak garbitzeko gel hidroalkoholikoak egongo dira.
- Horrez gain, alkohola egongo da, beharrezkoa denean, objektuak, identifikazio-dokumentuak, boligrafoak, etab. desinfektatzeko.
- IVAPeko langileek, lana amaitzean, maskarak eta eskularruak botatzeko behar duten azpiegitura izango dute.
- IVAPeko langileek maskara kirurgikoa erabiliko dute.
- Ahozko azterketan erabiliko den grabagailua plastikozko zorro batean sartuta egongo da eta manipulatu duen langileak ukitu aurretik eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbituko ditu.
- Ahozko azterketan, saio bakoitza bukatutakoan, mahaia, aulkia eta azterketariak ukitu ahal izan dituzten gainazalak gel hidroalkoholikoz eta erabili eta botatzeko paperez garbituko dira.
- Ahozko azterketa-saio bakoitza amaitutakoan, gela aireztatuko da hurrengo azterketariak sartu arte. 10 minutu gutxienez.
- Proba bakoitza amaitutakoan desinfektatu egingo da gela.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 27an

Prebentzio Zerbitzua
Administrazio Orokorra eta EEAA